



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Itzalaldien itzalak

New York, 1977ko uztailaren 13a. Goizeko 08:37etan tximista batek Hudson ibaiko Buchanan House estazio elektrikoa jo zuen. Hurrengo minutuetan ekaitzak hornikuntza sareko beste puntu batzuei eragin zien eta, azkenik, 09:27etan *Ravenswood 3* sorgailu nagusia itzali zen eta, horrekin batera, hiri osoa. Hornikuntza elektrikoa biharamunean itzuli zen, 25 ordu geroago.

Zenbaitek espero zuten ondorioak handik bederatzi hilabetera nozituko zirela, jaiotza tasa bat-batean haziko zela, 1965eko azaroko itzalaldian ustez gertatu bezala. 1965ean matxura elektriko batek 13 orduz hornikuntzarik gabe utzi zituen AEBetako ekialdeko kostaldeko 35 milioi biztanle. Beste zereginik gabe eta kandelen argitan, askok sexu harremanak izan omen zituzten eta horrek jaiotze-tasaren bat-bateko igoera eragin omen zuen. Datuei begira, ordea, handik bederatzi hilabetera ez zen inolako *baby boom* izan; komunikabideek elikatutako mitoa baino ez zen. Gainera, 1965eko hartan itzalaldi elektrikoa bai, baina ez zen ilunaldirik izan, hornikuntza egu-nargiz egon baitzen etenda.

1977ko itzalaldiaren ondorioak berehalakoak eta oso bestelakoak izan ziren. Herritarrek, nagusiki Bronx, Brooklyn eta Harlemeko gunetakoek, kaleak hartu zituzten, dendak arpilatu, autoak eta eraikinak erre. Suhiltzaileek 1.307 sute itzali behar izan zituzten eta polizia 3.776 pertsona atxilotu zituen egun bakarrean.



VIEWING NYC

Brooklyngo Macon street, 1977ko uztailaren ondoren.

Uda hartan David Berkowitz *Samen semea* serieko hiltzaileak beldurra zabaldu zuen hirian eta zenbaitek horri egotzi izan dio herritarren erreakzioa. Uda hartako bero itoak ere eragina izan omen zuen herritarren aldarrean. Baina kontua da New York krisialdi ekonomiko larrian zegoela, zerbitzu publikoak na-

barmen murrizten ari zirela, delinkuentzia hazten... Hala, itzalaldien erromantizaziotik urrun, New Yorken 1977ko egun hartan gertatutakoak erakusten du, gainbehera ekonomikoari krisialdi energetikoa erantsiz gero, herritarren ezinegona dela eztanda egiten duena, eta ez jaiotza-tasa. ●



WESSIX ARCHEOLOGY

Zeltak, Alpeetatik Britainia Handira

York, Harvard eta Vienako unibertsitateetako genetisten arabera, Brontze Aroaren amaieran, duela 3.000 urte inguru iritsi ziren, eta ez beranduago, beste zenbait historialaririk uste bezala. Gainera, *Nature* aldizkarian argitaratu berri den ikerlan genetikoak beste bi on-

dorio nagusi atera ditu. Batetik, zeltak ez ziren Kaukasotik iritsi, Hallstatt kulturatik baizik, hau da, Alpe inguruetatik. Eta, bestetik, aldaketa genetikoak ez zen bat-batekoa izan, inbasio azkar batek eragin da; alderantziz, zeltak hainbat mendetan gradualki hedatu ziren uharteetan. ●